



# Egoitza Santua

## **FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA 97. MISIOEN NAZIOARTEKO EGUNERAKO**

**2023ko urriaren 22a**

***Bihotz sutsuak, oinak bidean (cf. Lk 24,13-35)***

*Anaia eta arreba maiteak:*

Aurtengo Misioen Nazioarteko Egunerako Lukasen ebanjelioko Emausen dizipuluen kontakizunean (cf. 24,13-35) inspiratzen den gai bat hautatu dut: “Bihotz sutsuak, oinak bidean”. Bi dizipulu haiek nahastuta eta atsekabetuta zeuden, baina Kristorekin Hitzean eta Ogi zatituan topo egitean, Jerusalemerantz abiatzeko eta Jauna benetan berpiztu zela jakinarazteko gogoaz piztu zitzairen. Kontakizun ebanjelikoan dizipuluen eraldaketa atzeman dezakegu irudi iradokitzaile batzuetatik abiatuta: *bihotz sutsuak* Jesusek Eskriturak azaltzen dituenean, *begiak zabalik* hura ezagutzean eta, amaitzeko, *oinak bidean* abiatzen direnean. Dizipulu misiolarien ibilbidea seinatzen duten hiru alderdi horien inguruan gogoeta eginez, egungo munduan ebanjelizazioarekiko dugun ardura berri du dezakegu.

*1. Bihotzak sutan zeuden “Eskriturak [...] azaltzen zizkigun bitartean”. Misioan, Jainkoaren Hitzak bihotza pizten eta eraldatzen du.*

Jerusalemetik Emausera doan bide luzean, dizipuluen bihotzak triste zeuden —euren aurpegietan islatzen zenez— Jesusen heriotzagatik, harengan sinesten baitzuten (cf. v. 17). Gurutziltzatutako Maisuaren porrota zela eta, Bera Mesiasa izatearen esperantza galdua zuten (cf. v. 21).

Orduan, “hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzairen eta beraiekin joan zen” (v. 15). Dizipuluen bokazioaren hasieran bezala orain ere, harriduraz beteriko unean, Jaunak bere gain hartzen du bere kideengana hurbiltzeko eta haiekin ibiltzeko ardura. Bere erruki handiagatik, Bera ez da gurekin egoteaz inoiz nekatzen, nahiz eta gure akatsek, zalantzek, ahultasunek, tristurak eta ezkortasunak “buru gutxikoak” (v. 25) eta fede gutxiko jendea izatera bultzatu.

Gaur, orduan legez, berpiztutako Jauna dizipulu misiolariengandik hurbil dago eta haiekin batera ibiltzen da, batez ere, ito nahi gaituen gure inguruko gaitzaren misterioaren aurrean galduta, adorerik gabe, kikilduta sentitzen direnean. Horregatik, “ez utzi inori itxaropena lapurtzen!” (Exhort. ap. *Evangeli gaudium*, 86). Jauna gure arazoak baino handiagoa da, batez ere Ebanjelioa munduari iragartzean aurkitzen dugunean. Izan ere, misio hau berea da, eta gu bere lankide umilak, “Morroi gizagaixoak” (cf. *Lk 17,10*), gara.

Kristorenganako dudak hurbiltasuna adierazi nahi diet munduko misiolari guztiei, bereziki, une zailak igarotzen ari direnei. Anaia-arreba maiteok, Jaun berpiztua zuekin dago beti, eta urrutiko tokietan ebanjelizazio-misioetan duzuen eskuzabaltasuna eta egiten dituzuen sakrifizioak ikusten ditu. Eguzkiak ez du egunero distira egiten, baina gogoan izan ditzagun beti Jesus Jaunak lagunei pasioaren aurretik esan zizkien hitzak: “Munduan larrialdirik izango duzue; baina izan adore! Nik garaitua dut mundua” (*Jn 16,33*).

Emauserako bidean bi dizipuluei entzun ondoren, Jesus berpiztuak “Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien” (*Lk 24,27*). Dizipuluen bihotzak piztu egin ziren, gerora batak besteari aitortuko zionez: “Ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzagunean?” (v. 32). Jesus, argi eta garbi, Hitz bizia da, bihotza berotu, argitu eta eraldatu dezakeen bakarra.

Horrela, hobeto ulertzen dugu San Jeronimoren baieztapena: “Liburu Santuak ez ezagutzea, Kristo ez ezagutzea da” (*Isaias profetari egindako iruzkina*, Hitzaurrea). “Jaunak ez bagaitu barneratzen, ezinezkoa da Eskritura Sakratuaren sakontasuna ulertzea, baina kontrakoa ere egia da: Eskritura Santurik gabe, Jesusek eta bere Elizak munduan duen misioaren gertaerak ulertezinak dira” (Carta ap. M.P. *Aperuit illis*, 1). Hori dela eta, Eskritura ezagutzea garrantzitsua da kristauen bizitzarako, are garrantzitsuagoa Kristoren eta bere Ebanjelioaren iragarpenerako. Bestela, zer transmitituko genieke besteei gure ideia eta proiektuak baizik? Eta gai ote da bihotz hotz bat gainerakoen bihotzak pizteko?

Utzi diezaiozun Jaun berpiztuari gure ondoan lagun izaten eta Eskrituren zentzua azaltzen. Utz diezaiozun gure bihotza pizten, argitzen eta eraldatzen, bere salbazioaren misterioa munduari jakinarazi diezaiozun bere Espiritutik datorren indar eta jakinduriarekin.

*2. Ogia zatitzean begiak “ireki eta ezagutu zuten”. Eukaristiako Jesus misioaren gailurra eta iturria da.*

Jainkoaren Hitzagatik berotuta dauden bihotzek bultzatu zituen Emauseko dizipuluak bidaiari misteriotsuari haiekin jarraitzeko eskatzera arratsalde amaieran. Eta, mahaiaren inguruan, begiak ireki egin ziren eta ezagutu egin zuten Berak ogia zatitzean. Dizipuluen begiak irekitzen dituen elementu erabakigarriena Jesusek egindako ekintzen sekuentzia da: ogia hartu, bedeinkatu, zatitu eta haiei eman. Familiako aita judu baten keinu arruntak dira, baina Jesukristok Espiritu Santuaren graziarekin egitean, beste bi mahaikideengan ogien biderkatzearen keinua eta, bereziki, Eukaristiarena, gurutzaren Sakrifizioaren sakramentuarena, berritzen ditu. Alabaina,

Jesus *ogia zatitzen duen Hura* dela konturatzen diren unean, “Jesus desagertu egin zitzairen begi aurretik” (*Lk 24,31*). Gertaera horrek gure fedearen oinarrizko errealitate bat adierazten du: ogia zatitzen duen Kristo zatitutako Ogi bihurtzen da, dizipuluaren artean banatu eta, beraz, haiek kontsumitzen dutena. Ikusezin bihurtu zen, dizipuluaren bihotzetan sartu eta are gehiago piztu zituelako, bideari lehenbailehen ekiteko eta gainerakoek Berpiztuarekin izandako topaketaren esperientzia bereziaren berri emateko. Beraz, Kristo berpiztua *ogia zatitzen duen Hura* da eta, aldi berean, *guretzat zatitutako Ogia* da. Horregatik, dizipulu misiolari bakoitza *ogia zatitzen duen hura* eta *zatitutako ogia dena* izatera deituta dago, Jesus bezala eta Bere baitan, Espiritu Santuaren ekintzari esker.

Horri dagokionez, gogoan izan behar da Kristoren izenean ogi materiala gosea dutenekin partekatzea dagoeneko badela ekintza misiolari kristaua. Are gehiago, Ogi eukaristikoa banatzea, Kristo bera dena, ekintza misiolari gorena da, Eukaristia baita bizitzaren, eta Elizaren misioaren, iturria eta gailurra.

Benedikto XVI.ak gogoratu zuenez: “Ezin dugu guretzat gorde [Eukaristiaren] Sakramentuan ospatzen dugun maitasuna. Duen izaeragatik, beharrezkoa da guztiei jakinaraztea. Munduak Jainkoaren maitasuna behar du, Kristo aurkitzea eta Harengan sinestea. Horregatik, Eukaristia ez da Elizaren bizitzaren iturri eta gailur bakarrik, bere misioa ere bada: “Benetan eukaristikoa den Eliza, Eliza misiolaria da” (Exhort. ap. *Sacramentum caritatis*, 84).

Fruiturik ezin du eman Berari itsatsita ez bagaude (cf. *Jn 15,4-9*). Lotura hori eguneroko otoitzarekin lortzen da, bereziki *adorazioarekin*, Jaunaren aurrean isilik gaudela, Eukaristian gurekin geratzen baita. Dizipulu misiolaria, Kristorekin duen elkartasuna maitasunez zainduta, eragiten duen mistiko bihur daiteke. Gure bihotzak beti irrika dezala Jesusen konpainia, Emauseko bien eskaera sutuki esanez hasperenean, batez ere gauaren hasieran: “Geldi zaitez gurekin, Jauna!” (cf. *Lk 24,29*).

*3. Abian jartzen diren oinak, Berpiztutako Kristoren berri emateko pozarekin. Etengabe irteeran dagoen Elizaren betiereko gaztetasuna.*

Begiak ireki ondoren, Jesus “ogia zatitzen” ezagutzean, dizipuluak berehala “jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren” (*Lk 24,33*). Jaunarekin izandako topaketaren alaitasuna gainerakoekin partekatzeko presaka ibiltzeak adierazten du “Ebanjelioaren alaitasunak Jesusekin topo egiten duten guztien bihotza eta bizitza osoa betetzen duela. Hark salbatzen dituenak bekatutik, tristuratik, barneko hutsunetik, isolamendutik askatzen ditu. Jesukristorekin alaitasuna jaio eta birsortu egiten da” (Exhort. ap. *Evangelii gaudium*, 1). Ezin da Jesus berpiztuarekin benetan elkartu besteei jakinarazteko nahia sentitzen ez bada. Horregatik, Eskrituratan eta Eukaristian Kristo berpiztua ezagutu dutenek, bihotzean sua eta begiradan argia daramatenek, osatzen dute misioaren lehen baliabidea eta baliabide nagusia. Gehiago hiltzen ez den bizitzaren berri eman dezakete, baita egoerarik zailenetan eta unerik ilunenetan ere.

“Abian jartzen diren oinen” irudiak gogorarazten digu, beste behin, *mision ad gentes* misioaren baliozkotasun iraunkorra, Jaun berpiztuak munduko txoko guztietako pertsonak eta herriak ebanjelizatzeke misioa eman ziona Elizari. Gaur inoiz baino gehiago, hainbeste injustizia, banaketa eta gerrak zauritu dituen gizateriak bakearen Berri Ona eta Kristorengan duen salbazioa behar ditu. Horregatik, aukera hau aprobetxatu nahi dut berriro esateko “guztiek dutela Ebanjelioa jasotzeko eskubidea. Kristauek horren berri eman behar dute inor kanpoan utzi gabe, ez betebehar berri bat ezarrita, baizik eta alaitasuna dakarren, paisaia ederra seinalatzen duen edo oturuntza desiragarria eskaintzen duen berri gisa partekatuta” (*ibid.*, 14). Misioen bidezko konbertsioa da banako eta komunitate gisa gure buruari jarri behar diogun helburu nagusia, “misiolarien irteera baita Elizaren obra guztiaren paradigma”(*ibid.*, 15).

Paulo apostoluak dioenez, “Kristoren maitasunak bultzatzen gaitu” (2 Ko 5,14). Maitasun bikoitza da honako hau: Kristok gugana duen maitasuna, Berarenganako maitasuna erakarri, inspiratzen eta pizten duena. Eta maitasun horrek eragiten du Eliza irteeran beti gaztea izatea, kide guztiak misioan Kristoren Ebanjelioaren berri ematea eragiten duena, konbentzituta baitaude “Kristo denengatik hil zela, bizi direnak ez daitezen berentzat bizi, beraiengatik hil eta piztu den harentzat baizik” (v. 15). Guztiek egin diezaiokete ekarpena misio-mugimendu honi otoitzaren eta ekintzaren bidez, dirua eta sakrifizioak eskainita, bai eta norberaren lekukotasuna emanda ere. Misio Obra Pontifikalak dira misio-lankidetzak hau, esparru espiritualean nahiz materialean, hobesteko tresna pribilegiatua. Hori dela eta, Misioen Munduko Egunean jasotako dohaintzak Fedea Hedatzeko Obra Pontifikalari bideratuko zaizkio.

Elizaren misio-ekintzaren larritasuna dela eta, kide guztien misio-lankidetzak gero eta estuagoa behar da maila guztietan. Hori da, hain zuzen, Eliza jarraitzen ari den ibilbide sinodalaren oinarritzeko helburuetako bat, eta hitz gako hauek ditu: *elkartasuna*, *parte-hartzea* eta *misioa*. Ibilbide hori ez da Eliza bere baitaratzeko modu bat, ezta, parlamentuan egingo balitz bezala, gizakien lehentasunen arabera zer sinetsi eta zer praktikatu eta zer ez erabakitzeke galdeketa herrikoi bat ere. Horren ordean, bideari ekiteko modu bat da, Emauseko dizipuluek egin zuten moduan, Jaun berpiztuari entzunez. Hura beti agertzen baita gure ondoan Eskrituren zentzua azaltzeko eta gurekin Ogia zatitzeko, eta, horren bidez eta Espiritu Santuaren indarrarekin, bere misioa munduan zehar eramateko.

Bi dizipulu haiek “bidean gertatua kontatu zieten” moduan (*Lk 24,35*), gure iragarpena ere Kristo, Jauna, bere bizitza, pasioa, heriotza eta berpiztearen kontakizun alaia izango da, bere maitasunak gure bizitzetan egin dituen gauza miragarrien kontakizuna.

Has gaitezen gu ere oinez, Berpiztuarekin izandako topaketak argiztatuta eta haren Espirituak adoretuta. Atera gaitezen bihotz sutsuekin, begi irekiekin, aurrera doazen oinekin, beste bihotz batzuk Jainkoaren Hitzarekin piztera, Eukaristiako Jesusekin beste begi batzuk irekitzera eta guztiok elkarrekin ibiltzen jarraitzera bakearen eta Jainkoak Kristoren bidez gizateriari eman dion salbazioaren bidez.

Bideko Santa Maria, Kristoren dizipulu misiolarien Ama eta misioen Erregina, erregutu ezazu

gure alde.

*Erroma, San Joan Laterangoa, 2023ko urtarrilaren 6a, Jaunaren Epifaniaren Solemnitatea.*

## **Frantzisko**

---

Copyright © Dicastero per la Comunicazione - Libreria Editrice  
Vaticana